

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 138/2021 FORU DEKRETUA, azaroaren 9koa, zeinaren bidez ezartzen baitira mendekotasuna duten adinekoentzat Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu forala ematen parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroetako langileen gaitasun profesionala hobetzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdiak 2021eko ekitaldirako.

I

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak helburu nagusi bat du enpleguaren arloan: langabezian dauden pertsonak laneratu daitezten lortzea eta, aldi berean, Bizkaiko enpresetan askotariko talentua sar dadin erraztea. horretarako, lan-aukerak sustatzeko jarduera-ildo zenbait ezartzen dira, langabeziaren gizarte-kostu handiena jasaten duten langabeentzat (denbora luzeko langabeak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, gizartean bazterturik daudenak edo horren arriskua dutenak, eta gazteak) eta Bizkaiko enpresentzat, horrela modua izan dezaten behar dituzten profilak berengantzeko (kontratatziorako pizgarriak) eta laneratzea mesedetu dadin, zeina gauza egingarriagoa eta iraunkorragoa baita kasu batzuetan, enpresari autonomoaren edo enpresa kolektibo txikiaren formulen bitartez, autoenplegua sustatuz.

Bizkaiko biztanleria gero eta zaharragoa da. Bizi-itxaropenek gora egin dute, eta, beraz, aurreikuspenen arabera, adineko pertsonentzako zaintza-zerbitzuen eskaera gero eta handiagoa da eta izango da. Pertsonak itxaropen handiagoak dituzte, bai nahi lortu duten bizi-kalitateari dagokionez, bai jasotzen dituzten zaintzen profesionaltasunari dagokionez.

Abenduaren 16ko 11/2005 Foru Arauak, mendekotasuna duten Bizkaiko adinekoentzako egoitza-zerbitzu publikoa arautzen duenak, profesionalizazio-printzipioa eta arreta pertsonalizatuaren printzipioa ezartzen ditu erabiltzailearentzako arretaren printzipioen artean.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak mendekotasuna duten adinekoentzako egoitzako foru-zerbitzua kudeatu ahal izango du zuzenean, bere baliabideekin edo zeharka, beste administrazio publiko batzuekin egindako hitzarmenaren bidez edo erakunde pribatuekin egindako kontratuaren bidez, erakunde horiek irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo merkataritza-sozietateak izan.

Adinekoen zaintzaren helburua ez da zaintzen kalitatea, bizi-kalitatea baizik. Adinekoen arretaren kontzepzio berri horren barruan zaintza profesionalak ematea nagusitzen da, arreta eta bizikidetzaren premietara egokitutako habitat funtzional batean. Helburua oinarritzko zainketei eraginkortasunez erantzutea da; aldi berean, pertsonen behar integralak aseko dituzten giroak behar dira, harremanak eta jarduerak sustatzen dira, eta pertsona horien biografia, balioak eta izaera bera ulertzen eta errespetatzen dira.

Arretaren gunea erabiltzailea da, haren duintasuna, ongizatea, eskubideak eta erabakiak. Testuinguru berri honetan, beharrezkoa den arretan bilakaera-ildo berriak zehazteko beharrezkoak planteatzen da, eta, beraz, lanbide-rol berri baten eskakizuna.

Artatutako pertsonen artean arrisku-, hauskortasun- eta kalteberatasun-egoerak areagotzeak gero eta beharrezkoagoa eta baliotsiagoa egingo du, arreta-zerbitzuetako profesionalen artean, pertsonetikiko prebentzio- edo babes-esku-hartzeak proaktiboki aurrreratzea ahalbidetuko duten zantzuak edo seinaleak ahalik eta lasterren hautemateko gaitasuna. Ataza berri horien artean informazio horiek behar bezala bideratzeko eta komunikatzeko gaitasuna sartzen da.

Horrek esan nahi du egoitzetako langileen gaitasun profesionalak hobetu behar direla, bai beren lanbidearen alderdi teknikoei dagokienez, bai komunikazio-gaitasunak eta gaitasun digitalak hobetzei dagokienez.



Horregatik guztiagatik, komenigarritzat jotzen da Foru Dekretu bidez laguntza-lerro espezifikoa bat antolatzea, mendekotasuna duten Bizkaiko adinekoentzako egoitzetako langileen lanbide-gaikuntza hobetzeko programa bat abian jar dezan, honako helburu hauekin:

- Itunpeko egoitzetako langileen prestakuntza-maila handitzea, espezialitate berriei buruzko prestakuntza sustatuz.
- Zaintzen sektorearen balioari garrantzia ematea, langileen prestakuntza-maila handituz.
- Lanbide-gaitasun berriak sartuz, gaur egun zaintzen arloan eskatzen diren premiei erantzungo dien figura profesional bat definitzea.
- Zaintzen sektorean enplegua sortzen laguntzea.

Horregatik, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak plan bat garatu nahi du Foru Dekretu honetan, bi jarduera-ildo dituen, haren bitartez hobetzeko mendekotasuna duten adinekoentzat Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu foralean parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroetako langileen gaitasun profesionala 2021eko ekitaldian.

Lehenengoan, langile gerokultoreei zuzendutako espezializazioko prestakuntza-programa bat abian jartzea ezartzen da.

Bigarren jarduera-ildoa, diru-laguntzen lerro bat ezartzen da prestakuntza-ekintzak hasten dituztenen ordezkioak kontratatzeko.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 30eko 66/2020 Foru Dekretua aldatzen duen otsailaren 23ko 9/2021 Foru Dekretuan ezarri denaren arabera, sail honen helburua da Bizkaiko gizartearen berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta bete garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan garatzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetzaren zein garapenaren arloko politiken bidez.

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Foru Dekretu honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduaren buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2. artikulua irakurrita.

Azken horrek xedatzen du Foru Aldundiari dagozkiola araubide erkideko aldundien eskumeneko gaiak, eta, ildo horretan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.d) artikulua ezartzen du probintziako diputazioen berezko eskumena dela «Probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetzaren ematea, arlo horretan beste herri-administrazioek dituzten eskumenekin bat etorriz».

III

Dekretuan jasotako laguntzen programa iraupen luzeko zainketetan trantsizioa sustatzeko planaren barruan dago; plan horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak, iraupen luzeko zaintetako eraldatzea sustatzeko, beste aurrerapauso bat eman nahi du iraupen luzeko zaintzen pertsonalizaziorako bidean, bizi-proiektua garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrezan, itxaropenen eta lehentasunen aniztasunari eta bilakae-rari erantzun ahal izateko.

**IV**

Dirulaguntzen programa hau jasota dago Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldirako dirulaguntzen bigarren plan estrategikoan (1. helburu orokorra, 1.5 jarduketa-lerroa). Plan hori Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren azaroaren 15eko 9457/2019 Foru Aginduaren bidez onetsi zen eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren abenduaren 1eko 9852/2020 Foru Aginduaren bidez aldatu zen.

V

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu nahi du Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta berdintasunaren arloko foru-politika bultzatu.

Horregatik, Foru Dekretu honen esparruaren barruan jasotako jarduerak txertaturik izan behar dute genero-ikuspegia beren garapenetan, eta bat etorri behar dute Sailak berdintasunaren arloan dituen ildo estrategikoekin, hau da, hauekin: zeharkakotasuna, ahalduz eta balioen aldatzea, lana eta familia bateragarri egitea eta erantzunkidetasuna, bai eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko konpromisoa ere. Horretarako, erakunde onuradunek ziurtatu beharko dute langileek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko beharrezko prestakuntza dutela, laneratze-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko aukera emango diena.

Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Haren bidez, hain zuzen, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua onetsita, Foru Dekretu hau egitean kontuan hartu da foru-arau horretan ezarritakoa.

Dekretu honen garapenean gizarte -neurriak ezarri dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta. Foru Dekretu horren bidez, batetik, Dirulaguntzen Erregelamendua aldatzen da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena; eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru -laguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida onartzen da.

VI

Dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

VII

Garapen iraunkorraren aldeko politikaren arloan, dekretu honen entitate onuradunei gomendatzen zaie euren jarduerak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlana egin dezatela, eragina gutxitzearen.

Era berean, azaroaren 8ko 31/1995 Legean ezarritakoaren arabera gomendatzen zaie laneko osasun eta segurtasunerako arriskuei buruzko azterlana eta prebentzio-jardueraren plangintza egitea.

VIII

Foru Dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekre-



tuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Ildo horretan, 2/2017 Foru Dekretuan adierazitakoarekin bat, foru dekretua dela-eta, aurretiazko kontsulta publikoaren eta informazioa publikoaren izapidea egin da, zeintzuen emaitzak dagozkien memorietan jaso diren.

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 14. artikulua ezarritakoarekin bat, honako txostenak egin dira:

1. Proiektua sustatu duen sailak egindako txosten juridikoa.
2. Genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoaren txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

IX

Xedapen hau onesteko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.

Hori dela bide, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko ren ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — *Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdiak onestea*

Onesten dira mendekotasuna duten adinekoentzat Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu forala ematen parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroetako langileen gaitasun profesionala hobetzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdiak 2021eko ekitaldirako, eta jarraian txertatzen da haien testua:

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen Gehigarri Bakarra. — *Aurrekontu-izendapena*

1. Foru Dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak ondoren aipatuko diren aurrekontuko partiden eta horniduren kontura emango dira. Partida eta hornidura horiek aurrekontuei buruzko indarreko araudiaren arabera aldatu ahal izango dira.

I. TITULUA

- Partida: 0904/G/241116/45100 2021/0011.
- Hainbat urtetarako gastua: 2.117.648,00 euro.
- Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
 - 2021. urtea: 1.800.000,00 euro.
 - 2022. urtea: 0.00 euro.
 - 2023. urtea: 317.648,00 euro.

II. TITULUA

- Partida: 0904/G/241116/44300 2021/0011.
- Hainbat urtetarako gastua: 2.300.000,00 euro.
- Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
 - 2021. urtea: 0,00 euro.
 - 2022. urtea: 1.300.000,00 euro.
 - 2023. urtea: 1.000.000,00 euro.



- Partida: 0904/G/241116/45100 2021/0011.
- Hainbat urtetarako gastua: 982.352,00 euro.
- Zenbatekoa, ekitalditan banatuta:
 - 2021. urtea: 0,00 euro.
 - 2022. urtea: 500.000,00 euro.
 - 2023. urtea: 482.352,00 euro.

2. Dirulaguntza hauetan, gehienez ere 5.400.000,00 euro eman ahal izango dira, gutxi gorabehera. Kopuru hori, gehieneko zenbatekoei doakiela, 34/2010 Foru Dekretuaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera alda daiteke.

Halaber, aurrekontuetako kredituen arteko banaketa gutxi gorabeherakoa da; beraz, aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera eta kontuan izanik izaera askotako erakunde onuradunak egon daitezkeela, Foru Dekretu honetan ezarritako aurrekontuko izendapenak Foru Dekretuan adierazitako partida ezberdinen artean banatu ahal izango dira, foru-agindu bidez, betiere ezarritako muga orokorra gainditu gabe.

Eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuaren gehieneko mugara heltzen ez bada, sobera geratutako zenbatekoa gastatzeko baimena ezeztatu egingo da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango dekretu hau aldatzea.

3. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako Foru Dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu beharko da.

4. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua babespean (5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten du dekretu horrek), aurrekontuko zuzkiduren guztizko zenbatekoa gehitu ahal izango da, gehienez ere 1.000.000,00 euro gehituz, baldin eta eskuragarri dauden kredituak gehitu badira kreditu-gehiak onartu direlako edo kreditua sortu edo gehitu delako, edo baldin eta kopuru osagarri bat badago aurreko deialdietan aurkeztutako eskaeren zenbatekoa aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan delako; kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Organo eskudunak baimenduko du kopuru handitze hori.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — Arauen garapenerako gaikuntza

Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren foru-diputatuari, Foru Dekretu hau osatu edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarraldia

Foru Dekretuak 2021, 2022 eta 2023an izango du indarraldia.

Azken Xedapenetako Hirugarrena. — Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean Foru Dekretu hau.

Bilbon, 2021eko azaroaren 9an.

Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



**MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKOENTZAT BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK
DUEN EGOITZEN ZERBITZU FORALA EMATEN PARTE HARTZEN DUTEN
GESTIO PRIBATUKO EGOITZA-ZENTROETAKO LANGILEEN GAITASUN
PROFESIONALA HOBETZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ETA
DEIALDIAK 2021EKO EKITALDIRAKO**

I. TITULUA**LANBIDE-GAIKUNTZA HOBETZEA****I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Parte-hartzaileak**

Honako hauek eskuratu ahal izango dituzte titulu honetan jasotako ekintzak:

- Mendekotasuna duten adinekoentzat Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu forala ematen parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroetako langileak.
- Langileek lan-kontratu mugagabe baten bidez lan egin beharko dute adineko ezinduentzako egoitza-zentro batean, gerokultore-lanpostu bat betetzeko.

2. artikulua. — Xedea.

Laguntzen xedea zera da: mendekotasuna duten adinekoentzat Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu foralean parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroetako langileen gaitasun profesionala hobetzea.

3. artikulua. — Erakunde onuradunak.

1. Honako hauek izan daitezke erakunde onuradunak: Bizkaiko Lurralde Historikoan lantoki bat duten adinekoentzako egoitza-zentroen enpresa-elkarteak.

Enpresa-elkarteek programa honetan parte hartzeko konpromisoa zuzenean hartzen duten enpresa elkartuen edo ordezkatuaren zerrenda aurkeztu beharko dute, elkarteko idazkariaren edo estatutuen arabera hori egiteko ahalmena duen pertsonaren ziurtagiri baten bidez. Ziurtagiri horretan berariaz adierazi beharko da konpromisoa hartzen duten enpresei behar bezala jakinarazi zaiela programa eta hartzen duten konpromisoa.

Enpresa-elkarteek egoitza-zentroaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, prestakuntza-plan bakoitza hastean. Bertan, banakako prestakuntza-plana garatzen den bitartean, gerokultore-lanpostuan ikasle gisa parte hartzen duen pertsona ordeztzen duen pertsonari bitarteko lan-kontratu egiteko borondate irmoa eta formala jasoko da.

Horretarako, elkarteak lantokien zerrenda aurkeztu beharko du, eta lantoki bakoitzari dagokionez, honako hauek zehaztu beharko ditu: egoitzak zer ekintzatan parte hartuko duen, zer udalerritan kokatuko den, zenbat langile eta zenbat parte-hartzaile efektibo izango diren, bai eta ordezkartza sindikalik dagoen ala ez ere.

2. Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:

- a) Berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa izatea administrazio-, lan- edo zigor-bidean.
- b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak.
- c) Ez betetzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru arau honetan ezarritako betebeharrak.

Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.



3. Erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
 - b) Onuradunak izateko, entitateak ez dira egon behar 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

4. artikulua. — Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

Honako hau izango da diruz lagun daitekeen jarduera: laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planak diseinatzea mendekotasuna duten adinekoentzat Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu foralean parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zer-troetako langileentzat, eta planok gauzatzea.

Laneratze-ibilbidea garatzen den bitartean, erakunde onuradunak erreferentziazko pertsona edo tutore bat izendatu beharko du nahitaez, eta bitartekari eta hezitzaile izan-go da orientazio- eta prestakuntza-prozesuan, laneratu arte. Pertsona horrek erakunde eskatzailearen kidea izan beharko du, plantillaren barrukoa edo xede horretarako kon-tratatua.

5. artikulua. — Laguntza eta orientazioa

Erakunde onuradunak berak egin ahal izango du, edo azpikontratatu ahal izango da.

Informazioa, banakako egoeraren diagnostikoa, aholkularitza, motibazioa eta lanera-tze-prozesuan pertsonak laguntzea ditu helburu. Jarduketa hauek sartzen dira:

- a) Diagnostiko indibidualizatua eta profila egitea.
- b) Jarraitu beharreko ikaskuntza-moduluaren banakako programazioa, curricu-lum-egokitzapen pertsonalizatuekin.
- c) Laguntza pertsonalizatua ikaskuntza-plana garatzeko
- d) Curriculum definitzea, lanbide-profila lanbide-gaitasunen arabera adierazita.
- e) Lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren deialdian izena emateko eta aurkezteko laguntza, SSCS0108 (pertsonei etxean laguntza sozio-sanitarioa ematea) edo SSCS0208 (mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan arreta soziosanitarioa ematea) ziurtagiria lortzeko.

Lan-orientazioa banakakoa izango da.

Erakunde onuradunek gutxienez 1 ordu eta gehienez 10 ordu eskainiko dizkiote lan-orien-tziazko zerbitzuari parte-hartzaile bakoitzeko.

6. artikulua. — Prestakuntza

Programatutako prestakuntza-eskaintzak beharren aurretiko diagnostiko batean oi-narrituko dira, eta argi eta zehatz adieraziko dituzte eskaintza horiek gauzatzearen bidez lortu nahi diren helburuak, parte-hartzaileek beharrezko gaitasun profesionalak eskura ditzaten.

Prestakuntza taldekoa izan behar da, eta ezaugarri hauek izango ditu:

1. Erakunde onuradunak zuzenean eman ahal izango du edo azpikontratatu ahal izango da. Azpikontratatz gero, 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan egin beharko da.

Elkarteak prestakuntza-planak egiteko kanpoko agenteak kontratatzen ditue-nean, gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, hornitzailea aukeratzeak eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideei erantzun diela bermatzeko, haren zen-batekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kontratu txikien zenbatekoa gainditzen duenean, salbu eta ezaug-arri bereziak direla-eta merkatuan ez badago zerbitzua ematen duten erakun-deen kopuru nahikorik. Proposamen ekonomikoa aukeratzen ez denean, bera-riaz justifikatuko da memoria batean.

Hala ere, erakunde onuradun batek hornitzaile bakarra azpikontratatu ahal izan-go du, esleipenaren zenbatekoaren %20 gainditu gabe.



Azpikontratazio guztiak idatzizko kontratu bidez egin beharko dira.

Ezin izango da kontratu bat zatikatu kontratuaren zenbatekoa murrizteko eta aurreko bi lerrokadetan eskatutako betekizunak ez betetzeko.

2. Prestakuntza presentziala edo erdipresentziala izango da.
3. Nolanahi ere, erakunde onuradunaren betebeharra izango da ziurtatzea prestakuntza ematen duen zentroak gaitegi bat duela, kalitate-maila egokia duten irakasle, ekipamendu eta lokalak erabiliz, parte-hartzaileei prestakuntza-planaren xede den lanpostuak eskatzen dituen eginkizunak betetzeko behar diren ezagutzak helarazteko.
4. Kualifikazioen sistema nazionalaren modulu-katalogoari lotutako prestakuntza edo I. eranskineko 2. paragrafoan jasotako prestakuntza ematen duen prestakuntza-zentroak Euskal Autonomia Erkidegoko Prestakuntza Zentro eta Erakundearen Estatuko Erregistroan egiaztatuta egon behar du, edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatuta SSCS0108 (pertsonei etxean arreta soziosanitarioa ematea) eta SSCS0208 (mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan arreta soziosanitarioa ematea) profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza emateko. Aurrez aurreko prestakuntza horiek zentroen instalazioetan egingo dira.
5. Mendetasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko erdi-mailako teknikariaren titulua lortzeko prestakuntza ematen duen zentroak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren baimena izan beharko du erdiko maila hori emateko.
6. Oro har, prestakuntza-planak 120 orduko iraupena izango du gutxienez, eta 600 ordukoa gehienez.
Prestakuntza ezin izango da egunean 8 ordutik gorakoa izan, ezta egunean 6 ordutik beherakoa ere.
Nolanahi ere, langile berak ezin izango du 600 prestakuntza-ordu baino gehiago jaso.
7. Prestakuntzaren edukia. Dekretu honen ondorioetarako, prestakuntza-plana honako hau da: dekretu honen I. eranskinean definitutako prestakuntza-ekintzen multzoa, eduki eta iraupen propioarekin: bai eta SSCS0108 (pertsonei arreta soziosanitarioa etxean ematea) eta SSCS0208 (mendeko pertsonei arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan ematea) profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzak ere.
Prestakuntza-planak I. eranskineko 2. atalean («Gerokultoreen prestakuntza-premien diagnostikoarekin lotutako prestakuntza-ekintzak») definitutako prestakuntza-ekintzak jasotzen baditu, prestakuntza-plan horrek honako prestakuntza-ekintza hau hartu beharko du kontuan lehentasunez: «Gerokultoreen zeregina pertsona ardatz duen arreta integratu eta integralerako funtsezko eragile gisa».
Prestakuntza-beharren arabera antolatu nahi diren talde adina prestakuntza-plan sistematizatu aurkeztuko dira.
8. Prestakuntza-plan bakoitzean 8-20 pertsonak parte hartuko dute.
Beraz, prestakuntza-plana hasi beharko duten pertsonen gutxieneko kopurua 8 izango da.
9. Prestakuntza-ekintza amaitzeko epea 2023ko ekainaren 30a izango da.
10. Prestakuntza-planari buruzko informazio- eta kontsulta-dokumentua aurkeztu beharko zaio langileen legezko ordezkariari, behar bezala zigilatuta eta sinatuta.
Langileen Legezko Ordezkaritza (LLO) dirulaguntzaren xede diren prestakuntza-planen berri emango zaio, beharren azterketa eta prestakuntza-plana emanez.
11. LLOak 15 eguneko epea izango du, dokumentazioa jasotzen duenetik, bere txostena egiteko. Txosten hori LLOak igorri ahal izango die enpresari eta Bizkai-ko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailari.
12. Ondorio horietarako, langileen legezko ordezkaritza (LLO) planean parte hartzen duten lantoki guztiei dagokiena izango da.



Lantokiren batean edo guztietan ordezkaritza sindikalik ez dagoela adieraztea ziurtagiritzat hartuko da ondorio guztietarako.

13. Prestakuntza-planak hasi aurretik, enpresako langileen ordezkaritza bidali behar-ko zaio plan horietan parte hartzen duten pertsonen zerrenda.

Hiru hilean behin, enpresek prestakuntza-planaren gauzatzearen berri emango diete langileen ordezkariari.

7. artikulua. — Laguntzen zenbatekoa eta muga

1. Laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta haien zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu dirulaguntzarako aurkeztutako laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan guztien benetako prezioa.

2. Laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, 9. artikuluko modulu ekonomikoak aplikatuko dira.

3. Laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzaren guztizko zenbatekoa 9. artikuluko moduluak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoaren baturak zehaztuko du.

4. Laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzeko gehienez 64.000,00 euroko dirulaguntza lor daiteke.

Ez da diruz lagunduko 9.786,00 eurotik beherako kostua duten laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plana.

5. Behin betiko adjudikazioa eginda, 2020ko urtarrilean eta 2023ko urtarrilean zehar, diruz lagundutako laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzean partaide-kopurua eta ordu-kopurua mantenduta, aukera izango da prestakuntza-ekintzen distribuzioa aldatzeko, baldin eta horretarako justifikazioa bada dirulaguntza eskatu zenean kontuan hartu ziren baldintzak gerora eta ezustean aldatu izana. Aldaketa horiek ez dute aldaraziko adjudikatutako zenbateko osoa, ez eta aurkezturiko prestakuntza-plan bakoitzari modulu ekonomiko bakoitzeko emandako dirulaguntza ere.

6. Erakunde eskatzaile bakoitzak titulu honetan lor dezakeen gehieneko dirulaguntza 1.000.000,00 eurokoa izango da.

8. artikulua. — Dirulaguntzak emateko prozedura eta balorazio-irizpideak

1. Norgehiagoka araubidearen bidez hautatuko dira eskabideak, hainbanatuta, 13. artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Horretarako, honako prozedura hau hartuko da norgehiagoka araubidetzat: aurkeztu diren eskabideak erkatu egiten dira, eta, artikuluko honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera, euren arteko lehentasun-hurrenkera ezartzen da. Gero, dagoen kreditua kontuan hartuta deialdian ezarri den mugarekin betiere, hurrenkera horri jarraituz adjudikatuko dira laguntzak, irizpide horiek aplikatuta punturik gehien lortu dutenetik hasi eta beherantz eginez.

3. Aurkeztutako eskabideak baloratzeko eta laguntzaren zenbatekoa zehazteko, laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzean baloratu beharreko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea. Memoriaren definizio-, kalitate-, eduki- eta aurkeztepen-maila. Gehienez, 5 puntu.

Irizpide hori baloratzeko, erakunde eskatzaileak laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planaren memoria aurkeztuko du, dekretuaren 21. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren arabera.

- b) Erakunde onuradunak aurkeztutako prestakuntza-eskaintzaren tipologia.

Prestakuntza-planean sartutako prestakuntza-eskaintza 1. eranskineko 1. atalari badagokio, 5 puntu emango dira.

- c) Prestakuntza-planaren ordu-kopurua.

Prestakuntza-planak 295 ordutik gorako iraupena badu, 5 puntu emango dira.



- d) Laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planean parte hartzen duten egoitza-zentro elkartuen edo erakunde onuradunak ordezkaturakoen kopurua.
10 baino gehiagok parte hartzen badute: 5 puntu.
- e) Laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planean parte hartzen duten egoitza-zentro elkartuetako edo erakunde onuradunak ordezkaturakoen pertsonen kopurua.
16-20 pertsonak parte hartzen badute: 10 puntu.
10ek baino gehiagok eta 15 pertsonak baino gehiagok parte hartzen badute: 5 puntu.

4. Aurreko balorazio-irizpideak kontuan hartu ahal izateko, dirulaguntzaren eskabidean ezarritako moduan bete beharko da eskatutako informazioa, Enplegu, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez, 21. artikuluan zehaztutako dokumentazio erantsiarekin batera. Eskabidean edo 21. artikuluan aurreikusitako dokumentazioan jasotzen ez denak 0 puntu emango ditu.

5. Dirulaguntzetarako eskabiderako aurkeztutako laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planen artean berdinketarik gertatuz gero puntuazio orokorrean, sailkapena egingo da irizpide hauetan lortutako puntuaziorik handiena kontuan hartuta, eta hemen ezarritako hurrenkeran, berdinketa hautsi arte. 3. apartatuko b), c), d) eta e) letrak.

Irizpide guztietan puntuazio berdina lortzen bada, eskabideak aurkeztu ziren hurrenkera erabiliko da berdinketa hausteko.

9. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko

Laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako modulu hauek aplikatuko dira:

1. 1. modulu. — Laguntzea eta orientazioa

1. modulu. — Langile-gastuak

Orientazioko eta laguntzako ordu-kopurua pertsona bakoitzeko x pertsona-kopurua x 34 euro.

Modulu hau zenbat pertsona-taldek ordu kopuru bera jasotzen duten adina aldiz kalkulatu beharko da. Parte-hartzaileak laguntzako eta orientazioko zerbitzuetatik jasotako ordu-kopuru beraren arabera taldekaturik dira. 1. biderkatzailea laneko orientazioaren eta lan-bitartekaritzaren kontzeptuan jasotako ordu-kopurua izango da. Eta 2. biderkatzailea izango da orientazio eta bitartekaritza kontzeptuan ordu kopuru bera jaso duten pertsonen kopurua,

Modulu honetan sartzen dira langileen zuzeneko gastuak, soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak, bai eta zeharkako gastuak eta material-gastuak edo aseguruak ere.

2. 2. modulu. — Prestakuntza-plana bakoitzeko modulu hauek aplikatu beharko dira

2.1. modulu. — Langile-gastuak

Trebakuntza-orduen kopurua x 61,35 euro.

Funtzionamendu-gastuak: Modulu honetan jasoko dira irakasleen soldaten kostuak eta Gizarte Segurantzarenak.

2.2. modulu. — Funtzionamendu-gastuak

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2020ko ekainaren 24ko Ebazpenaren II. eranskinean jasotako prestakuntza-espezialitateetarako (ebazpen horren bidez, langile langabeei zuzendutako 2020-2022 prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan), aipatutako ebazpen horretako A) Modalitate presentzialean emandako ekintzetarako modulu ekonomikoak atalean jasotako B modulu «Funtzionamendu-gastuak» aplikatuko da; b.2.2 «Kualifikazio egiaztagarria eta egiaztatzea lortzeko prestakuntza-ekintzak».



Modulu hori era honetara aplikatuko da: prestakuntza-orduen kopurua x ikasle-kopurua x aurreko atalean jasotako modulu ekonomikoa.

Baldin eta prestakuntza-espezialitatea ez badago Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2020ko ekainaren 24ko Ebazpenean jasota, honela aplikatuko da modulua: 2020ko ekainaren 24ko Ebazpenean antzeko prestakuntza-espezialitate bat badago, eta kostuen parekatzea justifikatuta geratzen bada, espezialitate horri dagokion modulua aplikatuko da; antzeko izaerako espezialitaterik ez badago, «prestakuntza-orduen x ikasle-kopurua x 1,34 euro» modulua aplikatuko da.

2.3. modulua. — Zeharkako gastuak

2.1 modulua eta 2.2 modulua baturaren %10 izango da.

Modulu honetan kontzeptu hauek sartzen dira: zuzendaritza-gastuak, administrazio-ko langileen gastuak, berokuntza, garbiketa-argiak, instalazioen aseguruak, bulegoko materiala eta informatikaria, ura.

Prestakuntza-plana bakoitzeko 2. modulua zenbateko osoa 2.1 modulua eta 2.2 modulua eta 2.3 modulua batura izango da.

Programan parte hartzen duten pertsonen eskubidea izango dute beren soldata eta ikastaroak dakartzen gastuak (lekualdatze-gastuak) osorik jasotzeko.

3. 3. modulua. — Kudeaketa eta zuzendaritza

3. modulua kudeaketa eta zuzendaritza gastuak

Kudeaketa eta zuzendaritza ordu-kopurua x 34 euro.

Modulu honetan sartzen dira langileen zuzeneko gastuak, soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak, bai eta zeharkako gastuak eta material-gastuak edo aseguruak ere.

Kudeaketa eta zuzendaritza orduen gehieneko kopuruak ezingo du gainditu laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-orduen guztizko kopuruaren %10.

II. KAPITULUA

PROZEDURAZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

10. artikulua. — *Dirulaguntza ordaintzea*

1. Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

- a) Dirulaguntza ematen den unean, gehienez dirulaguntzaren %85 ordainduko da, erakunde onuradunak dirulaguntzaren ordainketaren zenbatekoa bermatzen duen bermea aurkeztu ondoren.
- b) Dirulaguntzaren gainerako portzentajea 2023. urtean ordainduko da, jarduerak garatzeko emandako laguntzaren justifikazioa egindakoan, gehienez ere 2023ko uztailaren 30erako egin beharko dena, 11. artikuluan ezarritako frogagiriak aurkeztuta.

Justifikazioari buruzko agiriak 11. artikuluan zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 30. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedura hasiko da.

2. Betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere bete dituztela egiaztatuko da.

Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 30. artikuluan eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarri den prozedura hasiko da, eta ohartaraziko zaio ezen eman zitzaion laguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko duela, eta emaniko kopurua doitu egin beharko zaiola.

**11. artikulua. — Justifikatzeko era**

Dirulaguntza justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez, behean adierazten diren epeetan:

1. 2022ko urtarrilean aurkeztu behar da 2022. urtean zehar laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planetan parte hartzeko interesa adierazi duten pertsonen zerrenda.
2. 2022ko ekainean, 2022ko maiatzaren 31n egindako jarduketan gauzatzeari buruzko tarteko txosten bat aurkeztu beharko du, honako hauek jasoko dituenak:
 - a) Aplikazio informatiko bat bete beharko da, non adjudikatutako laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planetan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren identifikazio-datuak jasoko diren: nortasun-agiriaren zenbakia, izena eta abizenak, helbidea, jaiotze-data, lan-egoera eta ikasketak.
 - b) Laguntza eta lan-orientazioaren 2022ko maiatzaren 31ra arteko prozesuari buruzko txostena, dokumentazio hau jasotzen duena:
 - 1) Egindako laneko laguntze- eta orientazio-ekintzei buruzko txostena, orientatutako pertsonen zerrenda eta saioen datak eta orduak adierazita.
 - 2) Erreferentziazko pertsonak edo tutoreek egindako jardueren deskribapena.
 - 3) Erakunde onuradunaren ziurtagiria, parte-hartzaile bakoitzak benetan egindako orientazio-orduen kopuruaren laburpen-taula jasotzen duena, ezarritako modulu ekonomikoak aplikatuz dagokion zenbatekoa kalkulatuta.
 - c) 2022ko maiatzaren 31ra arte egindako prestakuntza-planen memoria. Memoria horrek dokumentazio hau jasoko du:
 - 1) Prestakuntza-plana bakoitzaren deskripzio-memoria.
 - 2) Prestakuntza-planen gai-zerrenda.
 - 3) Erabilitako zabalkunde-neurrien egiaztagiriak.
 - 4) Erakunde onuradunaren ziurtagiri bat, non partaide bakoitzak eginiko prestakuntza-orduen laburpen-koadro bat jasotzen den (ezarritako modulu ekonomikoen ondoriozko zenbatekoaren kalkularekin).
 - d) Diruz lagundutako ekintzetan parte hartzen duen pertsona bakoitzak sinatutako egiaztagiria. Bertan, jasotako laguntze- eta orientazio-orduak, jasotako prestakuntza-orduak eta horien edukia zehaztuko dira.
 - e) Diruz lagundu den jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.

Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Gastu egozgarriak izango dira, hain zuzen ere, 9. artikuluan aipatzen diren moduluak egiaztatzearen ondorioz sortutakoak.
3. 2023ko urtarrilean, diruz lagundutako laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planaren gauzatzeari buruzko tarteko txosten bat aurkeztu beharko du 2022ko ekainaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean, honako hauek jasoko dituenak:
 - a) Aplikazio informatiko bat bete beharko da, parte hartzen duen pertsona bakoitzaren identifikazio-datuak jasoko diren: nortasun-agiriaren zenbakia, izena eta abizenak, helbidea, jaiotze-data, lan-egoera eta ikasketak.
 - b) 2022ko ekainaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean eginiko laguntza-prozesu eta lan-orientazioari buruzko txostena, honako agiri hauek barnean dituela:
 - 1) Egindako laneko laguntze- eta orientazio-ekintzei buruzko txostena, orientatutako pertsonen zerrenda eta saioen datak eta orduak adierazita.
 - 2) Erreferentziazko pertsonak edo tutoreek egindako jardueren deskribapena.
 - 3) Erakunde onuradunaren ziurtagiria, parte-hartzaile bakoitzak benetan egindako orientazio-orduen kopuruaren laburpen-taula jasotzen duena, ezarritako modulu ekonomikoak aplikatuz dagokion zenbatekoa kalkulatuta.



- c) 2022ko ekainaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte eginiko prestakuntza-planen memoria. Memoria horretan, dokumentazio hau jasoko da:
 - 1) Prestakuntza-plana bakoitzaren deskripzio-memoria.
 - 2) Prestakuntza-planen gai-zerrenda.
 - 3) Erabilitako zabalkunde-neurrien egiaztagiriak.
 - 4) Erakunde onuradunaren ziurtagiri bat, non partaide bakoitzak eginiko prestakuntza-orduen laburpen-koadro bat jasotzen den (ezarritako modulu ekonomikoen ondoriozko zenbatekoaren kalkularekin).
- d) Diruz lagundutako ekintzetan parte hartzen duen pertsona bakoitzak sinatutako egiaztageria. Bertan, jasotako laguntze- eta orientazio-orduak, jasotako prestakuntza-orduak eta horien edukia zehaztuko dira.
- e) Diruz lagundu den jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.

Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Gastu egozgarriak izango dira, hain zuzen ere, 9. artikuluan aipatzen diren moduluak egiaztatzearen ondorioz sortutakoak.
- 4. 2023ko urtarilean aurkeztu behar da 2023. urtean zehar laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planetan parte hartzeko interesa adierazi duten pertsonen zerrenda.
- 5. 2023ko uztailaren 30era arte —2023ko urtarilaren 1etik aurrera eginiko jarduketei dagokienez— txosten bat aurkeztu beharko da, eduki hauek jasotzen dituenak:
 - a) Aplikazio informatiko bat bete beharko da, non adjudikatutako ekintzetan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren identifikazio-datuak jasoko diren: nortasun-agiriaren zenbakia, izena eta abizenak, helbidea, jaiotze-data, lan-egoera eta ikasketak.
 - b) Laguntza eta lan-orientazioaren 2023ko urtarilaren 1etik aurrerako prozesuari buruzko txostena, dokumentazio hau jasotzen duena:
 - 1) Egindako laneko laguntze- eta orientazio-ekintzei buruzko txostena, orientatutako pertsonen zerrenda eta saioen datak eta orduak adierazita.
 - 2) Erreferentziazko pertsonak edo tutoreek egindako jardueren deskribapena.
 - 3) Erakunde onuradunaren ziurtagiria, parte-hartzaile bakoitzak benetan egindako orientazio-orduen kopuruaren laburpen-taula jasotzen duena, ezarritako modulu ekonomikoak aplikatuz dagokion zenbatekoa kalkulatuta.
- c) 2023ko urtarilaren 1etik ekainaren 30era arte eginiko prestakuntza-planen memoria. Memoria horretan, dokumentazio hau jasoko da:
 - 1) Prestakuntza-plana bakoitzaren deskripzio-memoria.
 - 2) Prestakuntza-planen gai-zerrenda.
 - 3) Erabilitako zabalkunde-neurrien egiaztagiriak.
 - 4) Erakunde onuradunaren ziurtagiri bat, non partaide bakoitzak eginiko prestakuntza-orduen laburpen-koadro bat jasotzen den (ezarritako modulu ekonomikoen ondoriozko zenbatekoaren kalkularekin).
- d) Diruz lagundutako enplegu eta prestakuntza programako partaide bakoitzak sinatutako ziurtagiria, non jasotako laguntze- eta orientazio-orduak, prestakuntza-orduak eta haien edukia zehazten diren.
- 6. 2023ko uztailaren 30a baino lehen, egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa aurkeztu beharko da, honako hauek jasoko dituenak:
 - a) Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Gastu egozgarriak izango dira, hain zuzen ere, 9. artikuluan aipatzen diren moduluak egiaztatzearen ondorioz sortutakoak.
 - b) Dirulaguntzaren zenbatekoa, jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta 9. artikuluetan ezarritako moduluak oinarri kalkulatua.



- c) Aurreko 1) letran aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, diruz lagundutako proiektua finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakaturik, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.
 - d) Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen itzulketaren ordainketa-gutuna.
 - e) 26. artikuluan («Emandako dirulaguntzen publizitatea») 2. eta 3. apartatuetan ezarritako zabalkunde-neurriak bete direla egiaztatzen duten agiriak.
7. Justifikazioari buruzko agiriak zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 30. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedura hasiko da.
8. Erakunde onuradunak dokumentazio hau gorde beharko du:
- a) Prestakuntzara bertaratu izanaren egiaztakia, edo, hala badagokio, gaitasuna egiaztatzeko parte-hartzaileei emandako ziurtagiria, 12. artikuluan ezarritakoarekin bat.
 - b) Parte-hartzaileen hartze-agiria, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - c) Parte-hartzailea 1. artikuluan adierazitako kolektiboaren barruan dagoela egiaztatzeko agiria.
 - d) Egindako prestakuntza-plana bakoitzeko, bertaratzeko-kontrolko orrien kopia.

12. artikulua. — Bertaratzeko-ziurtagiriak

1. Prestakuntza-planetako parte-hartzaileek, ordu kopuruaren %75 gutxienez bete badute eta azterketa baten bidez aprobetxamendu egokia egin dutela erakusten badute, lortutako gaitasunaren egiaztakia jasoko dute; bertan adieraziko da jardueraren gaien edukiak barneratu diren eta zer kalifikazio lortu duten.

2. Era berean, programatutako prestakuntza-ordu kopuruaren %75 gutxienez bete ez duten eta ezagutza proba gainditu ez duten parte-hartzaileek bertaratzeko-ziurtagiri bat jasoko dute, non adieraziko den ez dutela proba gainditu.

Azterketan edo ezagutza proban ariketa batzuk egin beharko dira, parte-hartzaileek prestakuntza-planan lortu dituzten gaitasunak noraino menderatzen dituzten neurtzeko.

3. Aurreko kasu bietan, egiaztaketan, gutxienez, egite-datak, orduak eta prestakuntzarako gai-zerrenda adieraziko dira.

4. Ez-betetzeari buruzko 30.2.b) artikulua aplikatzeko, prestakuntza ekintzarako programatutako orduen gutxieneko kopurua (%75) bete ez denean joko da pertsona batek ikastaroa bertan behera utzi duela. Ez da abandonatutako hartutako prestakuntza ekintza egiteko programatutako gutxieneko ordu-kopurua ez betetzea, baldin eta inguruabar hori justifikatzen bada. Ondorio horietarako, enplegua lortzea edo behar bezala justifikatutako inguruabar pertsonalak onartuko dira.

Parte-hartzailearen batek bertan behera uzten badu programa, beste ikasle batek har dezake haren lekua prestakuntzan. Ordezkapen hori egin ahal izateko, prestakuntza-ekintzarako programaturiko orduen %25 bete aurretik egin behar da.

13. artikulua. — Laguntza emateko prozedura

1. I. titulu honetan araututako diru-laguntzak norgehiagoka araubidearen bidez inongo dira; araubide hori 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan jasotzen da.

2. Horretarako, honako prozedura hau hartuko da norgehiagoka araubidetzat: aurkezten diren eskabideak eratu egiten dira, eta, 8. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideen arabera, euren arteko lehentasun-hurrenkera ezartzen da. Gero, dagoen kreditua kontuan hartuta deialdian ezarri den mugarekin betiere, hurrenkera horri jarraituz adjudikatuko dira laguntzak, irizpide horiek aplikatuta punturik gehien lortu dutenetik hasi eta beherantz eginez.

3. Hainbanaketa lortzeko, laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-plan bakoitzeko, 8. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuz lortutako puntuazio osoa hartuko da (C deritzona).



Hainbanaketa C kopuru hori baliagarri dagoen kredituaren gehieneko zenbatekoaz biderkatu eta erakunde onuradun bakoitzari dagozkion C kopuru guztien batukinaz zatitzearen emaitzaren arabera aplikatuko da, betiere eskatutako zenbatekoaren mugarekin eta gehienez ere 7. artikuluan ezarritako 64.000,00 euro.

4. 5/2005 Foru Arauaren 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, hainbanaketa aplikatu ondoren, eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutako baino txikiagoa bada, erakunde onuradunari eskabidea birformulatzeko eskatuko zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzaren arabera egokitzeko.

Erakunde onuradunak 10 eguneko epea izango du birformulazio hori aurkezteko, behin-behineko ebazpena jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hori amaitzen denerako erakunde onuradunak ez badu erantzunik eman, hasierako eskabidearen edukia hartuko da kontuan.

Edonola ere, eskabidearen birformulazioan dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, baita eskabideari dagokionez ezarritako ebaluazio-irizpideak ere.

II. TITULUA

KONTRATAZIOARI LAGUNTZEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

14. artikulua.— *Xedea*

Titulu honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak enplegaragarrtasuna sustatzeko eman ahal izango dituen laguntzak ezartzea eta arautzea, gehienez ere 5 hilabeteko iraupena duten bitarteko lan-kontratuen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu foralean parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroek formalizatutakoak, baldin eta beren langileak langabetuekin ordeztan badituzte, programa honen kargura diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten bitartean.

Kontratuaren iraupena bat etorriko da prestakuntzak irauten duen bitartean lanpostua betetzearekin.

15. artikulua.— *Erakunde onuradunak*

1. II. titulu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu foralean parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroak, edozein dela ere haien forma juridikoa.

2. Erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- b) Onuradunak izateko, entitateak ez dira egon behar 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.
3. Pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute, inola ere, inolako laguntza edo dirulaguntzarik jaso:
 - a) Berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa izatea administrazio-, lan- edo zigor-bidean.
 - b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak.
 - c) Ez betetzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. tituluari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarritako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru arau honetan ezarritako betebeharrak.



Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatiko bazterkeria eragiten duten jarduerak edo ekintzak.

4. Bi kasutan soilik aldatu ahalko da diru-laguntzaren erakunde onuraduna: batetik, enpresa onuraduna desagertu, fusionatu edo eraldatzen den subrogazio kasuetan, edo, bestetik, legez hala xedatzen den kasuetan.

Dena den, enpresa berriak dekretu honetako 15. artikuluan aurrez ikusitako baldintzak bete beharko ditu.

Aldaketarako eskaria Enplegua Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi eta aurkeztu beharko zaio, eta horretarako bi hileko epea egongo da, diruz laguntzen den kontratua justifikatzeko epea hasi baino lehen. Aldaketa hori Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuaren foru-agindu bidez onetsi beharko da.

Jakinarazpena eta eskaera ez badira epe barruan egiten, edo enpresak ez baditu artikuluko honetako baldintzak betetzen, 30. artikuluan eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarritako prozedura hasiko da.

16. artikulua. — Diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta betekizunak

1. Diruz lagundu ahal izango dira Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu foralean parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroek Bizkaiko langabeei formalizatutako bitarteko lan-kontratuak (gehienez 5 hilabetetarako direnak), baldin eta beren langileak langabetuekin ordeztzen badituzte, Foru Dekretu honen kargura diruz lagundutako prestakuntza-planetan parte hartzen duten bitartean.

2. Ez dira diruz lagunduko ordeztutako langilearen prestakuntza-aldiaren iraupenarekin bat ez datorren iraupena duten kontratuak, edo kontratuaren iraupena 5 hilabetetik gorakoa denean.

3. Prestakuntza-planetan parte hartzen duten langileek beren kontratuei eutsi eta soldata-ordainsariak jaso beharko dituzte prestakuntzak irauten duen bitartean.

4. Erakunde onuradunek egin beharreko bitarteko kontratuen plangintza aurkeztu beharko dute, eta aldi eta egunak adierazi beharko dituzte.

5. Kontratuen baldintzak:

- a) Diruz lagunduko dira ordeztutako langilearen prestakuntza-aldiaren iraupenarekin bat datozen bitarteko kontratuak, eta, gehienez ere, 5 hilabeteko iraupena izango dutenak.
- b) Lanaldi osoko kontratuak egin behar dira, edo lanaldi partzialekoak, baina, partzialetan, ohiko lanaldiaren %50 gutxienez izan behar du lanaldiak, kontratuaren hasiera-egunetik indarraldia amaitu arte.
- c) Kontratutako pertsonak Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako lantokietan egin beharko dituzte beren zerbitzuak. Gainera, Bizkaian bizi behar dute eta baldintza bi horiei eutsi egin beharko diete kontratuaren indarraldi osoan.
- d) Titulu honetan jasotako kontratuen bidez kontratatutako langileek langabezia-egoera egiaztatu behar dute kontratua hasi aurretik.
- e) Kontratututako langile guztiek lanik gabe egon behar dute autonomia-erkidego edo estatu mailako zerbitzu publiko batean, kontratua egin aurretik.
- f) Nolanahi ere, egiten diren kontratuak bat etorri behar dute kontratua formalizatzean indarrean dagoen lan-araudiarekin.
- g) Ez dira diruz lagunduko urteko soldata gordin baliokidea, gutxienez, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoarekin bat ez datozen kontratuak.
- h) Kontratua egiten den datan, artikuluko honetan jasotako baldintzak bete beharko dira.

6. Era berean, prestakuntza-planetara joaten diren egoitza-zentroetako langileek egiten dituzten joan-etorrien gastuak ere diruz lagundu ahal izango dira.

**17. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa**

1. Bitarteko kontratuko egun bakoitzeko eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa 72,78 eurokoa izango da ohiko lanaldi osoaren kasuan. Lanaldi partzialeko bitarteko kontratuen kasuan, ezarritako lanaldiaren ehunekoaren arabera kalkulatu da eman beharreko zenbatekoa.

Kontratazioagatik dirulaguntzak kalkulatzeko, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera egindako bitarteko kontratu bakoitzari kontratazio-egun bakoitzeko aurreko lerrokatik ateratzen den zenbatekoa aplikatu zaio.

2. Joan-etorrien gastuak. I. tituluan jasotako prestakuntzara joateko bitarteko kontratuaren bidez ordeztu diren egoitza-zentroetako langileek lekualdatu behar badute prestakuntza horretara joateko, erakunde onuradunek 3 euro jasoko dituzte lekualdatze-egun bakoitzeko. Zenbateko hori parte-hartzaile bakoitzari ordainduko zaio, lekualdaketa egiaztatzea aurkeztu ondoren.

3. Guztira emango den dirulaguntza 1. eta 2. atalen batura izango da.

4. Bitarteko kontratazioen multzoagatik erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu 170.000,00 euroko muga.

I. KAPITULUA**PROZEDURAZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK****18. artikulua. — Laguntzak emateko prozedura**

I. Tituluko 2. atal honetan araututako diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidearen bidez emango dira; araubide hori 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan jasotzen da.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, hau jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskariak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan duten sarrera-datuen arabera ezarriko da eskarien arteko lehentasuna, eta, deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko hornidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak.

19. artikulua. — Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea

1. Honela ordainduko dira eskariei onarturiko diru-laguntzak:

a) Emandako kopuruaren %85raino, laguntza ematen den unean.

b) Gainerako ehuneko dokumentazio hau aurkeztu ondoren ordainduko da:

- 1) Kontratututako pertsonen ohiko bizilekua Bizkaian dutela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria.
- 2) Kontratatuaren «Izena emateko aldien eta lan-egoeraren txostena», Lanbidek emana.
- 3) Bitarteko lan-kontratuak enplegu-zerbitzu publikoari jakinaraztea (hatz-markea, data eta identifikatzailea adierazita).
- 4) Lehenengo hileko kontratazioei buruzko langileen zerrenda, kontratazioak amaitzen diren eguneko hilean.
- 5) Erakundeak emandako ziurtagiria, pertsona bakoitzeko joan-etorrien gastuen ordainketak jasotzen dituenak.

2. Telematikoki aurkeztu behar da justifikazioa, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bitartez, diruz lagundutako kontratuen aldia amaitu eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

Justifikazioari buruzko agiriak zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 30. artikuluan eta hurrengoetan aurrez ikusitako prozedura hasiko da.

3. Ez da beharrezkoa izango aurreko apartatuetan adierazitako agiri jakin batzuk aurkezte baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, eskura dituen datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, egiaztatu eta kontsultatu ahal baditu Administrazioaren eskuan dauden datuak, salbu eta entitate eskatzaileak hori egitearen aurka badaude; halakoan, agiriok aurkeztu beharko dituzte.



4. Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere bete dituztela egiaztatuko da.

Egindako egiaztapenaren bidez ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 30. artikuluan eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarri den prozedura hasiko da, eta ohartaraziko zaio eman zitzaion laguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea galduko duela, eta emaniko kopurua doitu egin beharko zaiola.

III. TITULUA PROZEDURA

20. artikulua. — *Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea*

1. Laguntza hauek jaso nahi dituztenek bakoitzari dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute, osorik beteta, 21. artikuluan zehaztu eta erantsitako dokumentazioarekin batera. Eskabidea, internet bidez egin behar da, nahitaez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtuala erabilita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluekin bat. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren web gunean sartu behar da (www.bizkaia.eus), «Non izapidetzeko» atalera, eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko bulego birtuala aukeratu.

2. Bulego birtuala erabiltzeko, sistemak sinadura elektronikoa (izenpe, NAN elektronikoa, FEA, B@KQ...) eskatuko ditu.

B@KQ txartela hemen eskuratu ahal da: Laguntza - Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bulegoan (Diputazio kalea, 7, beheko solairua, Foru Liburutegiaren kristalezko eraikina, Aldundiko Jauregiaren atzealdean, 48008-Bilbo. Sarrera: Metroko Moyua geraldakua, Diputazio kaleko irteera) edo Durangoko Herritarrentzako Arretako eskualdeko Bulegoan (Askatasuna etorbidea, 12, 48200-Durango), Bermeoko Hiritarrentzako Arretako eskualdeko Bulegoan (Dolariaga kalea, 19, 48370-Bermeo), Gernikako eskualdeko Bulegoan (San Juan Ibarra plaza, 5, 48300-Gernika-Lumo) edo edozein KZgune zentroan.

Hala ere, Bizkaibai txartela izanez gero, bulego birtualean sartzeko erabili ahal izango da.

3. Eskabide-orrira jo aurretik, sistemak Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Erakundearen Erregistroan inskripzioa egiteko beharrezkoak diren datuak eskatuko dizkizu. Inskripzio hori dirulaguntza eskatu aurretik egin behar da eta nahitaezkoa da.

Erregistro horren barruko datuetan edo eskabidean egiaztatutakoetan aldaketaren bat eginez gero, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari jakinarazi behar zaio, haren bulego birtualaren bidez.

4. Eskabideak aurkezteko epea:

- a) Lehen tituluan jasotzen diren dirulaguntzak eskatzeko epea Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 9:00etan, eta 2021eko azaroaren 22an amaituko da, 13:30ean.
- b) II. tituluan jasotako dirulaguntzak eskatzeko epea 2022ko urtarrilaren 15ean irekiko da lehen deialdian, 9:00etan, eta irailaren 30ean itxiko da, 13:30ean. Bigarren deialdian, 2023ko urtarrilaren 15ean irekiko da, 9:00etan, eta 2023ko maiatzaren 30ean itxiko da, 13:30etan.

21. artikulua. — *Nahitaezko dokumentazioa*

1. Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen ordezkariak eskabide-orraren atal guztiak bete behar ditu, artikuluan honen hurrengo ataletan ezarritako agiriekin batera. Eskabidea eta agiriak Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez aurkeztuko dira.



2. Banku-helbideratzearen fitxa kasu hauetan baino ez da aurkeztu behar: dirulaguntza sartzeko aukeratutako kontua berria denean Bizkaiko Foru Aldundiarekiko bere harremanetan.

Kasu horretan, eskaeran adierazitako kontu-zenbakiak eskabide-orrian jarritako bera izan behar du. Banku-helbideratzearen fitxaren atal guztiak bete behar dira, eta kasuan kasuko sinadura eta zigilu guztiak eduki behar ditu.

3. I. tituluan jasotako laguntzetara aurkeztu nahi dutenek garatu beharreko jardueren memoria bat aurkeztu beharko dute laguntze-, orientazio eta prestakuntza-plan bakoitzeko, honako hauek zehaztuta:

- a) Prestakuntza-eskaintza justifikatzeko beharrianen aurretiazko diagnostikoa, eskaintza horren bidez lortu nahi diren helburuak zehaztuz, parte-hartzaileek beharrezko gaitasun profesionalak eskura ditzaten.
- b) Laguntze-, orientazio eta prestakuntza-planaren deskribapena, planaren fase bakoitzaren azalpenarekin, beharren aurretiazko diagnostikoarekin bat etorriz.
- c) Proposatutako prestakuntza-planaren edukia eta metodologia zehazteko egin den diseinu-prozesua, Dekretu honen 1. eranskinean jasotako prestakuntzen artean.
- d) Lortu nahi diren helburuak.
- e) Prestakuntza-planaren fase bakoitza hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak.
- f) Prestakuntza-planen gai-zerrenda eta aurreikusitako ordu-kopurua.
- g) Zenbat laguntze- eta orientazio-ordu aurreikusten den parte-hartzaile bakoitzeko.
- h) Prestakuntza-plan bakoitzerako aurreikusitako ordu-kopurua.
- i) Gastuak, kontzeptu hauetan banakatuta:
 - 1) Laguntze- eta orientazio-kostua.
 - 2) Prestakuntzaren kostua.
- j) Azpikontratatzan bada, eskaintza eskatu zaien erakundeen zerrenda eta aurrez ikusten den gehieneko adjudikazio zenbatekoa.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak duen egoitzen zerbitzu foralean parte hartzen duten gestio pribatuko egoitza-zentroek, II. tituluan jasotako laguntzetara aurkeztu nahi badute, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) I. tituluan ezarritako prestakuntzara jotzen duten eta bitarteko kontratuen bidez ordeztuko diren erakundeko pertsonen zerrenda.
- b) Egin beharreko bitarteko kontratuen plangintza jasotzen duen memoria, kontratuak egiteko aldia eta egunak adierazita.
- c) Joan-etorrien gastuen kuantifikazioa, eragindako pertsonen zerrenda eta joan-etorrien egunak.

5. Diruz lagundutako jardueren azterketa eta ebaluazioa edozein unetan egin daitezke, jarduera hasten denetik, eta jarduera amaitu eta gero ere egin daiteke. Erakunde onuradunak lankidetzan jardun beharko du Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin edota sailak izendatzen duen edozein erakunderekin, eskatzen zaizkion datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu, eta baimena eman behar du datu horiek zuzenean jardueran parte hartu dutenei eskatzeko.

22. artikulua. — Prozedura hastea eta izapideak egitea

Dirulaguntzetarako eskabideak ez badaude osorik beteta edo erantsita ez badauzkate beharrezko diren agiri guztiak, edo laguntzaren xedea behar adina zehazten ez bada, erakunde eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio, jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epearen barruan akatsa zuzen dezan edo 21. artikuluan aipatu diren nahitaezko agiriak aurkez ditzan; halaber, adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela joko dela, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera Horretarako, ebazpen bat eman beharko da aurretik, lege horren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**23. artikulua. — *Dirulaguntzen adjudikazioa: baldintzak eta araubidea***

Dirulaguntzak eta laguntzak foru dekretu honetan ezarritako baldintzen arabera emango dira, I. tituluan ezarritako laguntzak esleitzeko norgehiagoka-prozeduraren bidez eta II. tituluan jasotako diru-laguntzetarako lehia askearen bidez.

24. artikulua. — *Dirulaguntzak ematea eta errekursoak jartzea*

1. I. titulurako aurkeztutako eskabideak ebazpen bakar baten bidez ebatziko dira, eta, 5/2005 Foru Arauaren 23. artikuluekin bat etorruta, ebazpen horretan hauek adieraziko dira: dirulaguntza eman zaien erakundeen zerrenda, gainerako eskabideen ezespena (hala denean), bai eta atzera egindakoen zerrenda, eskubideari uko egin diotenena eta geroago sortutako ezintasun materialaren ondorioz laguntza jaso ez dutenena ere.

2. Posta ziurtatuaren bidez egingo da I tituluan arautzen diren laguntzen deialdia ebazten duten foru-aginduen jakinarazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulutik 43. artikulura bitartean araututakoari jarraituz.

3. II. tituluko dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren titularraren berariazko eta banakako ebazpen baten bidez ebatziko dira.

Kasu bakoitzari dagozkion baldintza bereziak ezarri ahalko dira dirulaguntzen eskabideei baiezkota ematen dieten foru-aginduetan, eta entitate eta enpresa onuradunek nahitaez bete beharko dituzte baldintza horiek.

4. Posta ziurtatuaren bidez egingo da II tituluan arautzen diren laguntzen deialdiak ebazten duten foru-aginduen jakinarazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulutik 43. artikulura bitartean araututakoari jarraituz.

5. Onuradun bati dirulaguntza eman dion foru-agindua jakinarazi ondoren, hamar eguneko epea izango da hura onartzeko edo ukatzeko, eta epe horretan ez bada beren-beregi ezer adierazten, isiltasunez onartutzat joko da.

6. Foru Dekretu honen babesean aurkeztutako eskabideak ebazteko gehieneko epea sei hilabeteko epea igarotakoan amaituko da eskabidea deialdietako eskabideetarako, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunaz gero zenbatuta.

Aurkeztutako eskabide guztien beren beregiko ebazpena emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar badu ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea iraungi, eta beren beregiko ebazpena eman ez badu, eskabidea administrazio isilbidez ezetsi egin duela ulertuko da, ondoren ere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera beren-beregi ebatzi badaiteke ere.

7. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze errekursoa aurkez dakioke Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko titularrari, hilabete bateko (1) epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekursoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzietarako dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako eran. Ezingo dira errekurso biak aldi berean jarri.

8. Dirulaguntzen eskabideak Enplegu Sustatzeko Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuak ebatziko, behin Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak proposatuta.

Organo instruktoreak egiaztatu egingo du Foru Dekretu honetan erakunde onuradunaren izaera lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla.

25. artikulua. — *Erakunde onuradunaren betebeharrak*

1. Foru Dekretu honetan dirulaguntzen onuradunentzat ezartzen diren betebeharrez gainera, laguntzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek bete beharko dituzte 5/2005 Foru Arauaren 12., 13., 31.5 eta 41. artikuluetan ezarritakoak ere. Besteak beste, honako hauek:

a) Dirulaguntza ematearen funtsa den jarduera egitea edo hartarako jokabidea hartzea.



Esandakoaren ondorioz, laguntzaren erakunde onuradunak bere jarduera uzten badu, ekonomi jardueretan baja eman duelako, galdu egingo du dirulaguntzaren onuradunaren izaera eta, ondorioz, une horretatik ordaintzeke dagoen kopurua kobratzeko eskubidea ere.

- b) Dirulaguntza ematea edo hura lortzea funtsatzen duen jarduera egin dela edo hura egiteko jokabidea hartu dela justifikatzea, bai eta laguntza ematea funtsatu duten baldintzak betetzen direla ere justifikatzea.
- c) Dirulaguntza eman duen erakundeak egiten dituen egiaztapen-ekintzen pean jartzea, bai eta dirulaguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jardueren eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren fiskalizazio-prozeduren pean ere.
- d) Edozein administrazio edo erakunde publikok, nazionala izan zein nazioartekoa, dirulaguntza edo laguntzaren bat emanez gero xede bererako, dirulaguntza hau eman duen erakundeari horren berri ematea.
- e) Kontabilitateko liburuak, erregistroak eta gainerako agiri guztiak edukitzea (kasu bakoitzean onuradunari aplikatu behar zaizkion merkataritzako eta arloko lege-rietan ezarritakoaren arabera auditatuak), eta dirulaguntza hauen oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.
- f) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea (baita dokumentu elektronikoak ere), ekonomia eta fiskalizazio kontroleko organoek —Europako Gizarte Funtsakoek barne— egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabil ditzaketen neurrian, arlo horretan aplikagarria den araudiak ezartzen duen epean. Izan ere, Merkataritza Kodearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, liburuetan egindako azken idazpena igaro eta 6 urteko epean gorde beharko dira agiriok.
- g) Enplegua Sustatzeko Zerbitzuari jakinaraztea entitate adjudikaziodunaren sozietate-izenari dagokion edozein aldaketa, bai eta haren forma juridikoari dagokiona edo bazkideen aldaketari dagokiona eta abar ere.
- h) Erakunde onuradunak emakumeen eta gizonen tratu berdina eta dirulaguntza honen xede diren baliabideak eskuratzeko berdintasuna bermatuko du.
Era berean, material, irudi eta dokumentuetan ezin izango da erabili emakumea diskriminatzen duen irudirik, eta emakumeen eta gizonen berdintasun-balioak, rol aniztasuna eta erantzunkidetasuna sustatu beharko dituzte.
- i) Laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen zerga-betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko beharko dute.

Ezin izango dira onuradun izan lehenago jasotako beste dirulaguntzaren bat itzultzeko ordainketak egunean ez dituztenak.

Dirulaguntza ez da ordainduko harik eta erakunde onuradunak behar bezala egiaztatuko arte zerga-betebeharrak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak. Horrenbestez, galdu egingo du ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kobratzeko eskubidea, eta Foru Dekretu honen 30. artikuluan eta hurrengoetan ez-betetzeetarako ezarritako prozedura hasiko da.

2. Edozelan ere, goian aipatu diren inguruabarrak egiaztatzeko, ez da inongo organismoen ziurtagiririk aurkeztu behar. Egoera hauek Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak egiaztatuko ditu, beti ere abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta urriaren 1eko 39/2015 Legea kontuan hartuta.

3. Erakunde onuradunak, 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluekin bat, honako inguruabar hauen justifikazio-txostena aurkeztu beharko du, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute betebeharrak horietatik salbuetsita egotea:

- a) Pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta azkenetean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun



eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkari-tzan eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminazioak ziurtatuz.

- b) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izatea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, komunikazio formal eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.
 - c) Pantillan 250 langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitze-ko betebeharra betetzen dutela egiaztatu beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.
 - d) Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatze-ko eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.
4. Erakunde onuradunek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.
5. Erakunde onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

26. artikulua. — Emandako dirulaguntzen publizitatea

1. Foru Dekretu honen babesaren pean ematen diren dirulaguntzen publizitateari dagokionez, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatuak foru-agindu bat emango du BAO-n argitaratzeko zer dirulaguntza ematen diren, eta hor adieraziko da, batetik, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, eta, bestetik, adjudikaziodun gertatu diren erakundeen eta bakoitzari emaniko diru-kopuruen zerrenda bat.

2. 5/2005 Foru Arauaren 17.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza honen onuradun diren erakundeek behar bezala jakinarazi behar dute diruz lagundu den jarduera batek finantzaketa publikoa jaso duela. Horretarako, diruz lagundu den ekintza argitara emateko euskarri informatikoetan zein beste edozein euskarritan aditzera eman beharko da ekintza hori Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak finantzatu duela.

Diruz lagundutako laguntze-, orientazio- eta prestakuntza-planen zabalkundea egin beharko da, hasiera- eta amaiera-datak eta egingo diren lekua zehaztuz, Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak helarazitako jarraibideen arabera.

Prestakuntza-planaren edo ekintzaren egiteari buruzko publizitatean, Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketa jaso dela adierazten duen leloa sartu beharko da, eta Aldundiaren irudia erabili (haritzaren hosto gorria atzealde zuriaren gainean, eta Bizkaia hitza beltzez). Lelo hori inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan agertu beharko da, baita komunikabideetan egindako aipamenetan ere, eta prestakuntza ematen den gelan.

Beteko ez balira aurreko leerroaldeetan aipatu diren zabalkundeko neurriak, onuradunari errekerimendua egingo litzaioke, ezarritako zabalkundeko neurriak har ditzan 15 eguneko epea amaitu baino lehen, eta ohartaraziko zaio ez-betetze horrek dekretu honen 32. artikuluan xedatutako itzulketarako prozedura hastea ekarriko lukeela.



3. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatu-takoarekin bat, erakunde onuradunak II. tituluan jasotako publikotasun aktiboari dago-kionez adierazitako betebeharrak bete behar dit, baldin eta 2. artikuluan jasotako ba-lizkoetako batean badago: aurrekontu-ekitaldi baten zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik jasotzen duten era-kunde pribatuei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

27. artikulua.— Dirulaguntza beste dirulaguntza batzuekin batera lortzea

1. I. eta II. tituluetan ezarritako laguntzak jasotzea bateragarria izango da xede be-rerako estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio nahiz era-kunde publikok edo pribatuk ematen dituzten laguntza, dirulaguntza, sarrera edo bali-a-bideekin. Hala ere, ezin izango da ekintza bererako dirulaguntza gehiago jaso Bizkaiko Foru Aldundiaren beste programa batetik, azken laguntza horiek bateraezinak izango baitira.

2. Dirulaguntza guztien zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ezta beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera ere.

Erakunde onuradunek nahitaez jakinarazi behar diote dirulaguntza eman dien orga-noari beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela hark diruz lagundu dituen jarduerak finantzatzeko.

Halako laguntza, sarrera edo baliabideak jaso behar direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

Jakinarazteko eginbehar hori ez betetzeak dagokion zehapena ekarriko du, 5/2005 Foru Arauaren arabera.

28. artikulua.— Dirulaguntzaren aldatzea

Dirulaguntzak emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzeak dirulaguntzen emakidari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezake, baldin eta dirulaguntzaren helburua eta xedea bete direla uste bada. Halakoetan, Foru Dekretu honetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko dira.

29. artikulua.— Dirulaguntza gutxitzea

Diruz lagundutako ekintzak egin direla justifikatzeko ezarritako epeak igaro ondoren, ekintza guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla egiaztatu eta justifikatu ez bada, be-tiere laguntzen helburua eta xedea bete direla uste bada, dirulaguntzaren zenbatekoa doitzeari ekingo zaio, benetan justifikatutako kostuen arabera. Horretarako, proportzio-naltasun irizpidea erabiliko da, baita dirulaguntza emateko orduan ezarritako irizpideak eta mugak ere.

30. artikulua.— Baldintzak ez betetzea

1. Honako kasu hauetan, baldintzak ez direla bete ulertuko da: laguntzak jaso di-tuzten erakunde onuradunek Foru Dekretu honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko gainerako arautegian ezarritako baldintzetako bat betetzen ez dutenean, bai eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezartzen diren kasuetan ere.

2. Ez-betetzea era honetara mailaka daiteke:

- a) Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik burutzeak dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du, edo, hala badagokio, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketak hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.
- b) Ez-betetzea prestakuntza-planetan gutxienez parte hartzen duten 8 pertsonen kopurua murriztearen ondorio bada, ez-betetzea honela kuantifikatuko da: plana 8 pertsona baino gutxiagok amaitzen badu, justifikatu gabeko arrazoren baten-gatik, plana utzi duen 8 pertsonatik beherako parte-hartzaile bakoitzagatik, 9.2



artikuluko 2. modulua aplikatuz diruz lagundutako guztizko zenbatekoaren %5 murriztuko da.

- c) Dirulaguntza kobratu eta gero, egindako gastu guztiak edo zati bat ordaindu gabe edukitzeak dirulaguntza itzuli behar izatea ekarriko du. Kasu horretan, dirulaguntza jaso dezaketen gastu egotzi guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren arabera izango da dirulaguntzaren itzulketa.
 - d) Dirulaguntza bat eman denean gastu-aurrekontu bat erreferentzia lege hartuta, baina egotzi eta justifikatutako gastua aurrekontuan ezarritakoa baino txikiagoa bada.
3. Kopuru baten gaineko ehunekoa kalkulatu lehen hamartarra 5 edo 5 baino handiagoa denean, ehunekoaren hamartar hori hurrengo zenbaki osora biribilduko da.

31. artikulua. — Aldaketen, gutxitzeen eta ez-betetzeen prozedura

Administrazio-unitate eskudunak izapidetuko du prozedura, eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren foru-diputatuak ebatziko du, eta, hala badagokio, adieraziko du erakunde onuradunek eman zitzaizen eta jaso zuten kopurua guztiz edo partez itzuli behar duten.

Horrez gainera, ez-betetzea gertatu dela adierazten duen foru-aginduan, zehapen-prozedura abiarazteko agindua eman daiteke, hala badagokio.

32. artikulua. — Itzuli beharreko kredituak

1. Dirulaguntzei buruzko erregelamendua onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 80. artikuluan arabera, dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazten duen erabakian prozedura hori zerk abiarazi duen, zer eginbide bete ez den eta dirulaguntzaren zer parter eragiten dion adierazi behar da. Onuradunari erabakia jakinaraziko zaio, eta hamabost eguneko epea emango zaio egokitze jotzen dituen agiriak alegatze-ko edo aurkezteko.

Dirulaguntza bat osorik edo haren zati bat itzultzen bada (dela aldaketa bategatik, dela gutxitzeagatik edo dela baldintzak ez betetzearen adierazpen batengatik), dirulaguntza ordaindu zenetik aurrera aplikatu behar diren berandutze-interesak ordaindu beharko dira, 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Onuradunak berak Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindakoa da borondatezko itzulketa.

Horretarako, aurretik idatzizko jakinarazpen bat bidali behar da Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailera, itzuli beharreko zenbatekoa, espediente zenbakia, data eta erakundearen ordezkariaren sinadura dituen.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu ditu, Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erakunde edo pertsona onuradunak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera.

Gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak dirua biltzeko prozedurari ekingo dio, eta norberaren borondatez ordaintzeko epea hasiko da.

33. artikulua. — Araudi orokorra

1. Foru Dekretu honetan aipatzen diren dirulaguntzek honako arau hauei jarraituko diete: Foru Dekretu honi beroni, laguntzak emateko foru-aginduei, 5/2005 Foru Arauari eta hura garatzen duen erregelamenduari (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsiari) eta Administrazio Zuzenbideko gainontzeko arauak. Halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira.

Administrazio-prozedurari dagokionez Foru Dekretu honetan jasotzen ez denerako, aplikatu beharrekoak izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legea eta 40/2015 Legea, bai eta bere izaeragatik aplikatu daitekeen beste edozein xedapen ere.



2. I. tituluan aurreikusten diren laguntzak ez dira estatu-laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritako moduan; izan ere, enpresari ez dakarkite mozkinik, eta ez diete ekoizpen edo enpresa batzuei mesederik egiten beste batzuen kaltetan. Beraz, salbuetsita daude tratatu horren 108.3 artikuluan ezarritako jakinarazpen-prozeduratik.

3. II. tituluan aurreikusten diren laguntzak Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Erregelamendu hori Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialaren 2013ko abenduaren 18ko alean argitaratu zen, eta EE Itunaren 107 eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, erregelamendu hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar diezazkioke entitate arau-hausleari.

4. Dekretu honetan jasotako diru-laguntzak Next Generation EU funtsak finantzatu ahal izango ditu. Funts hori berreskuratzeko aldi baterako tresna da, eta koronabirusaren pandemiak eragindako berehalako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzen lagunduko du.

34. artikulua.— Datuen babesa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduaren (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, interesdunak ematen dituen datuak dena delako prozeduran edo jardueran aurrez ikusitako xedeetarako erabiliko dira soil-soilik.

Hala ere, datu horiek inola ere ez dira erabiliko, ez beste bati lagako, estatistika- edo ikerketa-ondorioetarako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo aurreko arauetan ezarritako kasuetako bat gertatu ezean.

Datuak lagatzen dituenak noiznahi baliarazi ahal izango ditu datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubideak.

Halaber, interesdunek edozein momentutan aukera izango dute datuen tratamenduari buruzko adostasunean atzera egiteko.

Bestetik, fitxategiaren arduraduna eta datuen tratamenduaren barruko edozein fase-tan esku-hartzen duen edozein pertsonak datu horien edukiaren gaineko sekretu profesionala gorde beharko du.

35. artikulua.— Zehapen-prozedura

Erakunde batek 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan azaltzen diren arau-hausteetako bat eginez gero («Dirulaguntzen arloko arau-hausteak eta administrazio-zehapenak»), zehapena ezarriko zaio, behar den zehapen-espedientea egin ondoren, kontuan harturik zer xedatzen den 39/2015 Legean eta 40/2015 Legean, bai eta Administrazio publikoen zehapen ahalmena arautzen duen otsailaren 20ko 2/1998 Legean ere.

36. artikulua.— Deslokalizazioa

1. Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa. Halakotzat hartuko da martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak, enpresa-deslokalizazioen kasuan foro sektore publikoko laguntzak berreskuratzekoak, ezarritakoa, eta erabat aplikagarria izango da foro dekretu honetan araututako dirulaguntzetan.

2. Konpromiso hori ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez adieraziko da, eta emandako dirulaguntza itzultzeko arrazoia izango da, aipatutako foro arauan aurreikusitako prozedura aplikatuz.

**I. ERANSKINA / ANEXO I****1. atala / Apartado 1. — Mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko erdi maila lortzearekin lotutako prestakuntza-ekintzak. / Acciones formativas relacionadas con la obtención de Grado Medio en atención a personas en situación de dependencia.**

Lanbide-moduluen, ordu-esleipenen eta ikastaroen zerrenda / Relación de módulos profesionales, asignación horaria y curso de impartición

Kodea Código	Lanbide-modulua Módulo profesional	Ordu-esleipena Asignación horaria
0211	2. Gizarte-trebetasunak / Destrezas sociales	99
0212	3. Mendetasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak / Características y necesidades de las personas en situación de dependencia	132
0831	9. Telelaguntza / Teleasistencia	126
0020	10. Lehen sorospinak / Primeros auxilios	66
0219	13. Enpresa eta ekimen sortzailea / Empresa e Iniciativa Emprendedora	64

2. atala / Apartado 2. — Gerokultoreen prestakuntza-beharren diagnostikoarekin lotutako prestakuntza-ekintzak. / Acciones Formativas relacionadas con el diagnóstico de necesidades formativas del personal gerocultor

Prestakuntza-ekintza Acción formativa	Xedea Objetivo	Orduak Horas
Gerokultoreen zeregina pertsona ardatz duen arreta integratu eta integralerako funtsezko eragile gisa El papel del personal gerocultor como agente clave para la atención integrada e integral y centrada en la persona	Arreta integratu eta integralean eta pertsona ardatz duen arretan oinarrituta, kultura partekatua sortzea, eta, diziplina anitzeko taldearen barruan, gerokultoreen eginkizun funtsezko eta bereiziaren balioa nabarmentzea, haren ezarpen eta lorpenerako. Generar cultura compartida con base a la atención integrada e integral y centrada en la persona y poner en valor el papel fundamental y diferencial del personal gerocultor, dentro del equipo interdisciplinar, para su implantación y consecución.	35
Dementzia duten pertsonentzako arreta Atención a personas con demencia	Dementzia duten pertsonetikiko jardun profesionalaren garapena errazteko trebetasun espezializatuak bereganatzea, bai eta sintomak identifikatu, osasun-egoeran izan diren aldaketak detektatu eta konplikazioak prebenitzeko ere. Hori guztia, arreta integratu eta integralaren eta pertsona ardatz duen arretaren ikuspegi batetik. Adquirir competencias especializadas para facilitar el desarrollo de la labor profesional con personas con demencia, así como para identificar sintomatología, detectar variaciones en el estado de salud y prevenir complicaciones. Todo ello desde un enfoque de atención integrada e integral y centrada en la persona.	42
Gaixotasun mentala duten pertsonentzako arreta Atención a personas con enfermedad mental	Buruko gaixotasuna duten pertsonetikiko jardun profesionalaren garapena errazteko trebetasun espezializatuak bereganatzea, bai eta sintomak identifikatu, osasun-egoeran izan diren aldaketak detektatu eta konplikazioak prebenitzeko ere. Hori guztia, arreta integratu eta integralaren eta pertsona ardatz duen arretaren ikuspegi batetik. Adquirir competencias especializadas para facilitar el desarrollo de la labor profesional con personas con enfermedad mental, así como para identificar sintomatología, detectar variaciones en el estado de salud y prevenir complicaciones. Todo ello desde un enfoque de atención integrada e integral y centrada en la persona.	21
Gaixotasun kronikoa duten pertsonentzako arreta Atención a personas con enfermedad crónica	Trebetasun espezializatuak bereganatzea, gaixotasun kronikoa duten arreta/osasun-zainketa, gaixotasunen prebentzio eta osasunaren sustapeneko prozesuan hartze hartzeko. Hori guztia, arreta integratu eta integralaren eta pertsona ardatz duen arretaren ikuspegi batetik. Adquirir competencias especializadas para participar en el proceso de atención/cuidado sanitario, prevención de enfermedades y promoción de la salud de personas con enfermedad crónica. Todo ello desde un enfoque de atención integrada e integral y centrada en la persona.	42



Prestakuntza-ekintza Acción formativa	Xedea Objetivo	Orduak Horas
Zainketa aringarriak behar dituzten eta bizitzaren amaieran dauden pertsonentzako arreta Atención a personas con necesidad de cuidados paliativos y en fin de vida	Gaixotasun terminala duten eta/edo hiltzeko zorian dauden pertsonekiko jardun profesionalaren garapena errazteko trebetasun espezializatuak bereganatzea, bai eta sintomak identifikatu, osasun-egoeran izan diren aldaketak detektatu eta konplikazioak prebenitzeko ere. Hori guztia, arreta integratu eta integralaren eta pertsona ardatz duen arretaren ikuspegi batetik. Adquirir competencias especializadas para la atención a personas con enfermedades terminales y/o en proceso de morir, así como para identificar sintomatología, detectar variaciones en el estado de salud y prevenir complicaciones. Todo ello desde un enfoque de atención integrada e integral y centrada en la persona.	42
Egoiliarren lehen inguruneke arreta Atención al entorno primario de las personas residentes	Egoiliarren senide eta/edo pertsona garrantzitsuen aurrean erreferentziako langile gisa jarduteko trebetasunak eskuratzea, pertsona horien laguntza emozionaleko beharrei erantzutea, haien parte-hartzea arreta-planean sustatzea, eta harremanak bultzatzea; arreta integratu eta integralaren eta pertsona ardatz duen arretaren ikuspegi batetik. Adquirir competencias para actuar como personal de referencia ante familiares y/o personas significativas de residentes, dar respuesta a las necesidades de apoyo emocional que presenten, motivar su participación en el plan de atención y favorecer las relaciones, desde un enfoque de atención integrada e integral y centrada en la persona	21
Gizarte- eta komunitate-integrazioa laguntzea Apoyo a la integración social y comunitaria	Isolamendu sozialarekin eta nahi gabeko bakardadearen sentimenduarekin lotutako esku-hartze prebentibo eta arintzekoak garatzeko trebetasunak bereganatzea, arreta integratu eta integralaren eta pertsona ardatz duen arretaren ikuspegi batetik. Adquirir competencias para el desarrollo de intervenciones preventivas y paliativas relacionadas con el aislamiento social y el sentimiento de soledad no deseada, desde un enfoque de atención integrada e integral y centrada en la persona.	14
IKTak aplikatzea egoitza-zentroetan Aplicación de las TICs en los Centros Residenciales	IKTak lanaren antolaketan eta informazioaren kudeaketan aplikatzeko trebetasunak bereganatzea, bai eta aurrerapen teknologikoak egoiliarren arretan aplikatzea sustatu eta laguntzeko ere; arreta integratu eta integralaren eta pertsona ardatz duen arretaren ikuspegi batetik. Adquirir competencias para la aplicación de las TICs en la organización del trabajo y la gestión de la información, así como para promover y apoyar la aplicación de avances tecnológicos en la atención de las personas residentes, desde un enfoque de atención integrada e integral y centrada en la persona.	42
Osasun-laguntzarako oinarriko teknikak Técnicas básicas de apoyo sanitario	Egoiliarrei ematen zaizkien osasun-zerbitzuen osagarri diren oinarriko zereginetan erizainekin elkarlanean aritzeko ezagupenak eskuratzea. Adquirir conocimientos para colaborar con el personal de enfermería en tareas elementales que complementen los servicios sanitarios prestados a las personas residentes.	42
Nork bere burua zaintzeko estrategiak Estrategias de autocuidado	Nork bere burua zaintzeko estrategiak garatzeko trebetasunak eskuratzea, alerazio fisikoak zein psikologikoak prebenitzeko. Adquirir competencias para el desarrollo de estrategias de autocuidado para la prevención de alteraciones físicas y psicológicas.	28



II. ERANSKINA / ANEXO II

**KONPETENTZIA-ATALEN ETA BALIOZKOTZE-MODULUEN ARTEKO
EGOKITASUNA BALIOZKOTZEKO ETA LANBIDE-MODULUEN ETA LANBIDE
-MODULUAK KONPETENTZIA-ATALEKIN BAT ETORTZEA EGIAZTATZEKO
CORRESPONDENCIA DE LAS UNIDADES DE COMPETENCIA CON LOS MÓDULOS
PARA LA CONVALIDACIÓN, Y CORRESPONDENCIA DE LOS MÓDULOS
PROFESIONALES CON LAS UNIDADES DE COMPETENCIA PARA SU ACREDITACIÓN**

(VI. ERANSKINA, azaroaren 27ko 250/2012 Dekretuarena, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko teknikariaren tituluari dagokion curriculumaz ezartzen duena
ANEXO VI al Decreto DECRETO 250/2012, de 27 de noviembre,
por el que se establece el currículo correspondiente al título de Técnico
en Atención a Personas en Situación de Dependencia)

- 1. atala / Apartado 1.—***Kualifikazioei buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren gaitasun-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin. / Correspondencia de las unidades de competencia que se acrediten de acuerdo con lo establecido en el artículo 8 de la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y la Formación Profesional con los módulos profesionales.*

Gaitasun atala / Unidad de competencia	Lanbide modulua / Módulo profesional
UC1016_2: diziplinarteko taldeak adierazitako pertsonen eta horien inguruneari arreta egiteko jardunak prestatzea eta bultzatzea instituzio-esparruan. / UC1016_2: preparar y apoyar las intervenciones de atención a las personas y a su entorno en el ámbito institucional, marcadas por el equipo interdisciplinar.	0210. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua. / 0210. Organización de la atención a las personas en situación de dependencia.
UC1017_2: mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta fisikoaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. / UC1017_2: desarrollar intervenciones de atención física dirigidas a personas dependientes en el ámbito institucional. UC1018_2: mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako gizarte- eta osasun-arretaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. / UC1018_2: desarrollar intervenciones de atención socio-sanitaria dirigidas a personas dependientes en el ámbito institucional. UC0249_2: gizarte- eta osasun-laguntzako premiak dituzten pertsonen zuzendutako etxeko laguntza fisikoko esku-hartzeak garatzea. / UC0249_2: desarrollar intervenciones de atención física domiciliaria dirigidas a personas con necesidades de atención socio-sanitaria.	0217. Arreta higienikoa. / 0217. Atención Higiénica. 0216. Osasun-arreta. / 0216. Atención Sanitaria.
UC1019_2: mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta psikosozialaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. / UC1019_2: desarrollar intervenciones de atención psicosocial dirigidas a personas dependientes en el ámbito institucional. UC0250_2: gizarte- eta osasun-laguntzako premiak dituzten pertsonen zuzendutako etxeko laguntza psikosoziala fisikoko esku-hartzeak garatzea. / UC0250_2: desarrollar intervenciones de atención psicosocial domiciliaria dirigidas a personas con necesidades de atención socio-sanitaria.	0213. Arreta eta laguntza psikosoziala. / 0213. Atención y apoyo psicosocial. 0214. Komunikaziorako laguntza. / 0214. Apoyo a la comunicación.



Gaitasun atala / Unidad de competencia	Lanbide modulua / Módulo profesional
UC0251_2: bizikidetza-unitatearen kudeaketa eta funtzionamenduari lotutako jarduerak gauzatzeara. / UC0251_2: desarrollar las actividades relacionadas con la gestión y funcionamiento de la unidad convivencial.	0215. Etxeko laguntza. / 0215. Apoyo domiciliario.
UC1423_2: telelaguntzako zerbitzuaren sarra-deiei arreta egitea eta deiak kudeatzea. / UC1423_2: atender y gestionar las llamadas entrantes del servicio de teleasistencia. UC1424_2: telelaguntzako zerbitzuaren irteera-deiak egitea eta kudeatzea. / UC1424_2: emitir y gestionar las llamadas salientes del servicio de teleasistencia. UC1425_2: telelaguntzako zerbitzua egiteko tresnak, teknikak eta trebetasunak maneiatzea. / UC1425_2: manejar las herramientas, técnicas y habilidades para prestar el servicio de teleasistencia.	0831. Telelaguntza. / 0831. Teleasistencia.

2. atala / Apartado 2.— Titulu honetako lanbide-moduluen egokitasuna gaitasun-atalekin, horiek egiaztatzeko. / La correspondencia de los módulos profesionales del presente título con las unidades de competencia para su acreditación es la siguiente:

Lanbide modulua / Módulo profesional	Gaitasun atala / Unidad de competencia
0210. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua. / 0210. Organización de la atención a las personas en situación de dependencia	UC1016_2: diziplinarteko taldeak adierazitako pertsonen eta horien inguruneari arreta egiteko jardunak prestatzea eta bultzatzea instituzio-esparruan. / UC1016_2: preparar y apoyar las intervenciones de atención a las personas y a su entorno en el ámbito institucional, marcadas por el equipo interdisciplinar.
0217. Arreta higienikoa. / 0217 Atención Higiénica 0216. Osasun-arreta. / 0216. Atención Sanitaria	UC1017_2: mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta fisikoko jardunak garatzea instituzio-esparruan. / UC1017_2: desarrollar intervenciones de atención física dirigidas a personas dependientes en el ámbito institucional. UC1018_2: mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako gizarte- eta osasun-arretaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. / UC1018_2: desarrollar intervenciones de atención socio-sanitaria dirigidas a personas dependientes en el ámbito institucional. UC0249_2: gizarte- eta osasun-laguntzako premiak dituzten pertsonen zuzendutako etxeko laguntza fisikoko esku-hartzeak garatzea. / UC0249_2: desarrollar intervenciones de atención física domiciliaria dirigidas a personas con necesidades de atención socio-sanitaria.
0213. Arreta eta laguntza psikosoziala. / 0213. Atención y apoyo psicosocial. 0214. Komunikaziorako laguntza. / 0214. Apoyo a la comunicación.	UC1019_2: mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta psikosozialaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. / UC1019_2: desarrollar intervenciones de atención psicosocial dirigidas a personas dependientes en el ámbito institucional. UC0250_2: gizarte- eta osasun-laguntzako premiak dituzten pertsonen zuzendutako etxeko laguntza fisikoko esku-hartzeak garatzea. / UC0250_2: desarrollar intervenciones de atención psicosocial domiciliaria dirigidas a personas con necesidades de atención socio-sanitaria.



Lanbide modulua / Módulo profesional	Gaitasun atala / Unidad de competencia
0215. Etxeko laguntza. / 0215. Apoyo domiciliario.	UC0251_2: bizikidetza-unitatearen kudeaketa eta funtzionamenduari lotutako jarduerak gauzatzeta. / UC0251_2: desarrollar las actividades relacionadas con la gestión y funcionamiento de la unidad convivencial.
0831. Telelaguntza. / 0831. Teleasistencia.	UC1423_2: telelaguntzako zerbitzuaren sarra-deiei arreta egitea eta deiak kudeatzeta. / UC1423_2: atender y gestionar las llamadas entrantes del servicio de teleasistencia. UC1424_2: telelaguntzako zerbitzuaren irteera-deiak egitea eta kudeatzeta. / UC1424_2: emitir y gestionar las llamadas salientes del servicio de teleasistencia. UC1425_2: telelaguntzako zerbitzua egiteko tresnak, teknikak eta trebetasunak maneiatzeta. / UC1425_2: manejar las herramientas, técnicas y habilidades para prestar el servicio de teleasistencia.